

# txintxarri



## Afrikako memoriak, lasarteoriatarren ahotik

Senegalgo eta Ugandako bizipenak kontatu dituzte Estitxu Garmendiak eta Urtzi Agirretxek / 6-7

MARI KARMEN ORMAZABAL

## Galdeketaren lekuko

Katalunian dauden herritarrekin eta Lasarte-Oriako katalanekin hitz egin du TXINTXARRI-K / 8-9

Hamaika ekintza izango dira Adinduen Omenezko Astean, igandetik urriaren 8ra arte / 2

Maialen Chourrout hasi da lehiatzen Munduko Txapelketan. Saillkatuz gero, larunbatean jokatu luke finala / 10

R.P.S. 17515 LLG.

Erreflexuen aurkako  
**2 mō betaurreko**  
graduatu

**97€**

[www.multioplicasgipuzkoa.com](http://www.multioplicasgipuzkoa.com) f t e

ARRASATE • BEASAIN • BERGARA • DONOSTIA  
ERRETERIA • EIBAR • IRUN • ORDIZIA • TOLOSA

Eskaintza baliagarria 2017/12/31 arte. Kontsulta itzazu zure optikan kanpainaren ezagarriak. Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.



Gure betaurreko guztiak bilduma berrietakoak dira

Kale Nagusia, 15  
Tel.: 943 37 74 55  
**LASARTE**

**MULTIÓPTICAS**  
lehena zerbitzu optikoetan



Biyak Bat elkarteko kideak eta udal ordezkariak, aurkezpenean. TXINTXARRI

## Hamaika ekintza, pertsona adinduen omenez

Igandean hasiko dute Adinekoen Omenezko Astea, Biyak Bat elkarteko egoitzan bandera igota. Datorren igandera arte, urriaren 8ra arte, herriko pertsona adinduek hainbat ekintzez gozatu ahalko dute: bazkariak, dantzaldiak, jokoak eta erakustaldi ugari

### Txintxarri

Jesus Zaballos alkateak, Gizarte Zerbitzuetako arduradun Lourdes Acevedok eta Goyo De Miguel Biyak Bateko zuzendaritzako kideak Adinekoen Omenezko Asteko nondik norakoak azaldu zituzten asteazkenean.

Biyak Bat elkarteko Goyo de Miguelek igandetik urriaren 8ra egingo diren hainbat ekintza zerrendatu zituen agerraldian: bandera igotzea, meza, dantza eta kantu emanaldia, bazkaria, lehiaketak, Biyak Bat elkarteko taldeen erakustaldiak, ibilbide neurtua, urrezko ezteiak ospatzen dituzten bikoteen eguna eta elkartearen 30. urteurrena, besteak beste.

Zaballos alkateak eskerrak eman zizkion elkarteari udalaren partetik, aste hori antolatzeke egindako lanagatik. Era berean, pozik agertu da aurreko urteetako parte hartzea dela eta. Aurten ere horrela izan dadin, herritarrek gonbidatu ditu prestatutako ekintzetan parte hartzera.

### Egitaraua

#### Igandea 1

- **10:15** Bandera igoera eta aureskua, Biyak Bat egoitzan
- **11:00** Meza, San Pedro parrokian
- **12:00** Kalejira Manuel Lekuonara
- **12:30** Biyak Bat abesbatzaren eta Amaia Gonzalez Caballeroren akademiako saioa, Manuel Lekuonan
- **14:00** Bazkaria, Michelingo pilotalekuan
- **16:00** Dantzaldia Ruby Berriak taldearekin, Michelingo pilotalekuan

#### Astelehena 2

- **16:30** Toka, igela eta pote txapelketak, Isla plazan
- **18:00** Bingoa, Biyak Bat egoitzan
- **20:00** Saribanaketa, Biyak Bat egoitzan

#### Asteartea 3

- **16:00** Gimnasia erakustaldia, udal kiroldegian
- **19:00** Sun Magoa, Biyak Bat egoitzan

#### Asteazkena 4

- **18:30** Biyak Bat eta Trintxerpeko abesbatzen saioa, Brigitarren komentuan

#### Osteguna 5

- **17:00** Lerroko dantzak, Okendo plazan
- **19:00** Kike Biguriren bakarriketa, Biyak Bat egoitzan

## Buruntzaldeko ibilbideak ezagutzeko martxa

Lasarte-Oriako, Usurbilgo, Andoaingo eta Urnietako txokoak ezagutzeko aukera izango da urriaren 8an

### Txintxarri

Eskualdeko landa eremua ezagutzeko aukera paregabea eskaintzen dute Buruntzaldeko ibilbideek. *Buruntzaldea.eus* webgunean ikusi daitezke ibilbide horien nondik norakoak eta profilak. Dena den, bertatik bertara ezagutu ahal izateko ibilaldiak antolatu dituzte urriaren 8an. Hala, 08:30etatik 14:00etara ibilbide horiek egiteko aukera izango da; partaide bakoitzari abiatzen denean txartel bat emango zaio, irteera lekuko zigiluarekin. Partaide batek bi ibilbide eginez gero, orogarri moduan pontxo/xira bat jasoko du

oparitan. Eta, bukaeran, autobus zerbitzua izango da norbera abiatu den herrira itzultzeko; zerbitzu hau erabiltzeko, derrigor, hasieran jasotako txartela zigitatua aurkeztu beharko da.

Andoain, Usurbil, Lasarte-Oria eta Urnietako herriak lotzen dituen ibilbidea egin nahi izanez gero, Andoaindik 08:00etan abiatuko da talde bat, Euskalduna eta Mendigoizale elkarteek antolatuta. Autobusen zerbitzuen ordutegiak eta informazio gehiagorako, *buruntzaldea.eus* weborria bisitatu.



CNT

## Ez ahazteko mendi martxa

"Faxismoaren aurka" mendi martxa antolatu zuen CNT sindikatuak joan den igandean. Horrela, Zubieta gaineko Txaldaxur mendira joan ziren, Gerra Zibilean bizi galdu zutenak gogoan edukitzeko, eta gertaera horiek gogora ekartzeko. Horrekin batera, Islada Ezkutatuak taldea zoriandu zuten.

## Bizikletaren 200. urteurrenean, 200 emakume bizikletan

Igandean abiatuko dira Donostiatik, eta Lasarte-Oriatik igaroko dira. Herri bazkaria egingo dute gero

### Txintxarri

Modu berezian ospatuko dute igande honetan bizikletaren 200. urteurrena: 200 emakume bildu nahi dituzte bizikletan ibiltzeko. Donostian ibiliko dira, "ibilbide erraz" batean. Baina kilometro gehiago egin nahi dituenak izango du horretarako aukera. Beste hiru

ibilbide osagarri prestatu dituzte. Horieta bat Lasarte-Oriatik pasako da, Aginaga bidean.

Ondoren, herri bazkaria egingo dute. Antolatzaileek dei egin diete emakumeei apuntatzera. <http://200emabizi.com> webgunean eman daiteke izena.



Dioni Avila, Jesus Zaballos eta Nuria Fernandez, diru laguntzen berri emateko prentsaurrekoan. TXINTXARRI

## 25.000 euro, enpresa berriei laguntzeko

Negoio berriei laguntzeko, diru laguntzak eskatzeko epealdia zabaldu du udalak. Zenbait baldintza bete beharko dituzte enpresek horiek eskuratu ahal izateko, eta eskaerak egin eta onartu ahala banatuko dira diru laguntzak, kopurua agortu arte

### Txintxarri

Lasarte-Orian hirugarren sektorea indartzeko helburuarekin, komertzio hasiberriei bultzada emateko diru laguntzak emango ditu udalak, bigarren urtez. Merkataritzako, ostalaritzako edo zerbitzu pertsonalen eskaintzako enpresa txiki bat sortu nahi dutenei zuzendutako diru laguntzak izango dira. Horrela adierazi zuten Dioni Avila merkataritza teknikariak, eta Jesus Zaballos alkateak joan den ostiralean egin zuten prentsaurrekoan.

2017. urteko urtarrilaren 1etik herrian merkataritza, ostalaritza zein zerbitzu pertsonalerako komertzio berri bat martxan jarri duten pertsona fisiko zein juridikoek eskatu ahal izango dute diru laguntza. Baina horiek lortzeko, zenbait baldintza bete beharko dituzte.

Guztira, 25.000 euro banatuko ditu udalak, eta eskatzaile bakoitzak diru kopuru jakin bat jaso ahal izango du. Izaera orokorreko diru laguntza lagunduko diren gastuen

%40koa izango da; hau da, onuradunak 1.500 euro jaso ahal izango ditu gehienez. Izaera partikularreko laguntza jasotzen duten kopurua, berriz, lagunduko diren gastuen %60koa izango da: 1.800 eurokoa gehienez. Azken aukera hori jasotzeko eskubidea ondokoek izango dute: eragin komertzial nagusiko eremutik kanpo kokaturiko establezimenduek; erretiroagatik eskualdatuek; eta gutxienez %33ko desgaitasuna aitortua dutenek.

### Baldintzak

Diru laguntzak eskatu ahal izateko, zenbait baldintza bete beharko dituzte eskatzaileek. Hasteko, Jarduera Ekonomikoen Gaineko Zergen eta Gizarte Segurantzari dagokion erregimenean hasierako alta 2017ko urtarrilaren 1etik aurrerakoa izan beharko du. Horrekin batera, jarduera ekonomikoen gaineko zergen jarduera berean edo antzekoan matrikulatua ez egon izana

eskatuko zaie, behintzat negozio berria sortu aurreko sei hilabeteetan. Egoitza soziala eta fiskala Lasarte-Orian izatea beharrezko izango da, eta baimendutako sarbide publikoa duen establezimendu bat eduki beharko dute herrian, aurkeztu beharreko bideragarritasun planean deskribatutako jarduera garatuko duena. Azkenik, ez da enpresa berritza hartuko eskualdatu aurretik martxan zegoen jarduera bat, baldin eta enpresa titular berriak aurreko erlazioaren bat badu.

Gainera, mikroenpresa izateko baldintza bete beharko dute; hau da, gehienez ere hamar pertsonari lan eman ahal izango diete

Informazio gehiago nahi duenak, udalaren web orrian edota Avila enplegu teknikariaren helbidera, [d.avila@lasarte-oria.eus](mailto:d.avila@lasarte-oria.eus) e-postara idatziz eskura dezke, edo, bestela, 943 37 61 79 telefono zenbakira deituta.



NEURE KABUZ

MIKEL YARZA

### Betaurrekoak eta zubiak

Iraila amaierarekin batera iritsi ohi da urtero Zinemaldia Donostiara. Bederatzi egunez aretoen iluntasunean murgildu eta film betekadaz gozatzeko unea izaten da batzuentzat, izarrak gertutik jarraitu eta argazki edo sinadurak biltzeko parada beste askorentzat. Baina, alfonbra gorriko *glamour*-etik haratago, jaialdiak aukera ematen digu mundu zabaleko askotariko zinemagintzen berri izateko, eta, horrekin batera, baita herrialde horietako bakoitzaren gizarte erradiografia egiteko ere. Fikzioak errealitatea du iturburu, eta, horrenbestez, pantaila handiak ezagun ditu, besteak beste, krisi globala, nazioarteko politika, jihadismoa, emakumeen aurkako indarkeria edota haurdunaldi subrogatua.

Zinegile bakoitzak ekarpen propioa egiten du afera hauen harira, bizipen pertsonalek zein tokian tokiko inguruak berak baldintzatuta, eta, zentzu horretan, begirada aniztasuna aberasgarri ez ezik beharrezkoa ere bada, konpartitzen ditugun kezken ertz guztiak kontuan izateko. Baina begirada ezberdinek ere asko dute amankomunean, horren erakusle euskaldunok drama hungariar batekiko lotura estua sentitzea edota zinemazale japoniar batek frantziar komedia bat ikusi eta barrez lehertzea.

Jatorri ezberdinekoak gara denok, baina emozioak elkartzen gaitu, sentitzeko gaitasunak. Zinema hori dena haritu eta elkar ulertzeko baliabide izan daiteke, betaurreko diferenteen bidez erreparatuz gero, ikusten duguna beti aberasgarriagoa izango dela gogoan izateko erreminta. Filmek sortzaile eta hartzaileen artean eraikitzen duten zubia da akaso errealitate jakin batzuk ulertzeko dugun modu bakarra.

### Bizikidetzaren txostena aurkeztuko du udalak urriaren 5ean

Bakearen eta bizikidetzaren inguruan udal ordezkariak duten alderdi politikoen arteko hausnarketa, eta gehiengoaren adostasuna lortzeko bidean, bizikidetzarako mahaia sortu zuen udalak duela lau urte. Orain urtebete, "herrian gertatutako gorabeherak jasoko zituen lan bat" egiteko eskatu zioten giza eskubideen aldeko Argituz elkarteari. *Memoria historiko*

*partekatu baterantz* du izenburu, eta 1956-2016 urte bitartean gertatutako urraketak biltzen ditu.

Dokumentuaren aurkezpena egingo dute urriaren 5ean, kultur etxean, 19:00etan.

### Bizikidetzaren Taldearen balorazioa

Lasarte-Oriako Bizikidetzaren Taldeak txostena "txalotu" du. Gertatu diren giza eskubideen urraketak ezagutu eta zabalteak herriko bizikidetzaren berreraikitzen laguntzen duela uste du taldeak, eta babes osoa azaldu dute.



## ADURIZ DE LASARTE, S.A.

### BERTAN EKOITZITAKO KALITATEZKO PRODUKTUAK

- ✓ Odolkiak
- ✓ Solomo antzutua
- ✓ Etxeko txorizoa
- ✓ Basurde burua
- ✓ Txistorra
- ✓ Solomoa baratxuritan
- ✓ Tripakiak, saltxitxak...
- ✓ Baserri pateak

Loidi Barren kalea 3, 20160 Lasarte-Oria  
Tel: 943 36 12 78 - 943 36 16 55 - 943 36 24 51



Cristina Cabello lagunak egin ditu Solaskide programan. TXINTXARRI

## "Hitz egiteko lotsa ari naiz galtzen 'Solaskide'-rekin"

### CRISTINA CABELLO SOLASKIDEA

Lau urte eman ditu 'Solaskide' programan, eta euskaraz hitz egiteko konfiantza irabazteaz gainera, lagun onak ere egin ditu. Gustora joaten da ostegunero saioetara

#### Adrian Garcia

Laugarren urtea du Cristina Cabello *Solaskide* programan. Burgosekoa da bera, eta orain dela hamabost urte iritsi zen Lasarte-Oriara. Orain zazpi bat urte pausoa eman zuen, eta euskara ikasten hasi zen. "Erabaki nuen hemen geratuko

nintzela, eta jendearekin hitz egiteko eta lana aurkitzeko euskaraz ikasi nahi nuen".

#### Nolako izan da zure azken lau urteetako esperientzia *Solaskide* programan?

Oso ona. *Solaskideri* esker jarioetasun asko irabazi dut. Euskara ikastean beti gehien

kostatu izan zaitena da ahozkoa, eta, batez ere, bat-bateko elkarrizketa. Gauzak alde aurretik prestatu ditzazket, baina bat-bateko elkarrizketa oso zaila egiten zait. Nire *Solaskide* taldearekin oso ondo moldatzen naiz, eta asko laguntzen dit lotsa kentzen.

#### Hori al da zailena zuretzat, euskara hitz egiteko lotsa galtzea?

Bai. Nik badakit pertsona jakin batzuekin euskaraz hitz egin behar dudala. Baina gero kalean ezin dut. Ezinezkoa egiten zait ogia euskaraz erostea. *Solaskiderek*in hitz egiteko ohitura hartzen ari naiz, eta pixkanaka-pixkanaka beldur hori ari naiz galtzen.

#### Nola dira *Solaskide* saioak? Zer egiten duzue?

Lau lagun gara, eta astero elkartzeko gara Ttakun-Enean, ostegunetan normalean. Euskara hitz egin bitartean kafetxo bat edo freskagarri bat hartzen dugu. Batzuetan ere aprobeztatzen dugu eta pintxo-potera joaten gara. Kideak oso atseginak dira, oso jatorrak, eta harreman ona egin dugu. Oso gustora nago ni.

#### Zertaz hitz egiten duzue?

Denetik. Normalean bakoitzak kontatzen du zer egingo duen asteburuan. Eta denon artean plan berriak ezagutzen ditugu.

#### Lau lagun zarete, eta euskaldun zahar bat duzue taldean, ezta?

Bai. Asun euskaldun zaharra da. Beti moldatzen da, eta ostegun batean ezin badugu, beste egun batean elkartzeko proposatzen du.

#### Irakasle lanak egiten al ditu berak?

Ez, ez, ez. Hitz egin besterik ez dugu egiten. Ikasteko, euskaltegira noa. Nik solaskideekin bilatzen dudana da jarioetasuna hobetzea, eta beldurra kentzea. Badakit haiekin hitz egitean akats asko egiten ditudala, baina helburua ez da zuzentzea, hitz egitea baizik. Zuzentzeko irakaslea badut euskaltegian. Galdera bat egiten badiogu, zalantzak argitzen

dizkigu, baina ez ditu irakasle lanak egiten.

#### Osagarriak dira, beraz, euskaltegia eta *Solaskide* programa?

Niretzako hala da. Euskaltegian asko hitz egiten dugu, baina *Solaskide* asko laguntzen du ausartzeko.

#### Giroa ere desberdina izango da, ezta? Eskoletara joatea baino hobe izango da lagunekin kafe bat hartzea.

Bai. Ez dira eskolak. Orain, nire solaskideak lagunak ere badira. Hain zuzen, oso gustora joaten naiz eskolak ez direlako. Adibidez, uda honetan Asun Burgosera joan zen, eta deitu egin zidan jakiteko nora joan behar zuen turismo egitera.

#### Zure inguruan ba al duzu aukerarik euskaraz hitz egiteko?

Bai, aukera badut, baina asko kostatzen zait. Lagun asko dauzkat euskaraz dakitenak. Baina bakarrik *Solaskiden* erabiltzen dut euskara, asko kostatzen zaitelako. Badakit txipa aldatu beharra dudala. Horretan laguntzen dit *Solaskide*; gero eta jende gehiagorekin hitz egiten dut euskara. Talde askotan egon naiz, eta jende asko ezagutu dut horri esker; guztiakin kalean euskaraz hitz egiten dut. Gero eta aukera gehiago dauzkat euskaraz hitz egiteko.

#### Zer esango zenioke *Solaskiden* hasteko zalantzan dagoen pertsona bati?

Hasieran zalantzak izaten dira, ez dakizulako zer jenderekin egingo duzun topo. Baina oso atseginak dira denak; haien denbora eskaintzen dute zuk euskara ikasi dezazun. Oso hurbileko harremana lortzen da.

## Martxan da udal euskaltegia

Astelehenean eman zioten hasiera aurtengo ikasturteari, eta hamar talde osatu dira.

87 ikasle arituko dira euskara ikasten, eta gainerako sei ikasle autoikaskuntza aritzeko hautua egin dute; euren kabuz egingo dute ikasketa.

Ikasturtea abiatu den arren, euskara ikasi nahi duen edonork aukera du izena eman, eta ikasketei ekiteko, eta asistentziaren %85a betetzen duten ikasleek, kostuaren %85 berreskuratu ahal izango dute, udalaren laguntzei esker.



TXINTXARRI

## Komunikazioaren garrantzia ume jaioberriekin

Urriaren 4an, arratsaldeko 17:00etan, azken bost hilabeteetan umea izan duten gurasoei zuzendutako *Komunikazioa haurraren zorientasunean* hitzaldia eskainiko dute, Antonio Mercero aretoan.

Paula Kasares aditua haurraren hizkuntza-garapenari buruz mintzoko da, eta hurbiltzen diren gurasoen galdera eta kezka argituko ditu.

Lasarte-Orian duela urte batzuk garatzen ari den *Haur Jaioberriak*



programan txertatzen da hitzaldi hau. Programaren helburua gurasoei hizkuntzen kudeaketak ume jaioberrien garapenean duen garrantzia helaraztea da. Udalak gurasoei dei egin die haientzat prestatutako hitzaldi honetan parte har dezaten.

# Ezin geldirik egon Mugikortasun Astean

Autoari alternatiba bat eskaini, eta, bidez batez, jolasen bidez ongi pasatu. Ostiralean motorrik gabeko ibilgailuak izan ziren nagusi Lasarte-Orian, eta gaztetxoek ongi aprobetxatu zuten aukera. Eguraldia lagun, hamaika jokoetan parte hartu zuten.

## Txintzarri

Herritar guztiak zeuden gonbidatuak, baina batez ere gaztetxoek gozatu dute. Mugikortasun Astea dela eta, hainbat ekintza antolatu zituzten joan den ostiral arratsaldean; Kale Nagusia trafikoari itxi, eta jolastoki erraldoi bihurtu zuten, Okendo plazarekin batera: bizikletan zirkuituak, herri kirolak, futbola, segway-en ibilaldiak. Bizikleta gainean pare bat martxa ere egin zituzten, begiraleek lagunduta.

Garraibide garbiak sustatzeko helburuz, bigarren eskuko bizikleten azoka egon zen Okendon plazan bertan, eta jende ugari bildu zen haren bueltan.



Eguraldia lagun, gaztetxoek primeran pasa zuten jolasekin. TXINTXARRI



Segway-en ibiltzeko aukera izan zuten gaztetxoek. TXINTXARRI



Ipar martxakoek ere ez zuten hutsik egin Mugikortasun Astean. ARGAZKJABEAXXX

# Denboraldiz kanpokoari etekina atera nahian

Stock Azoka aprobetxatu dute askok, eta denden eskaintza bereziak ikustera gerturatu dira ostiralean eta larunbatean. Denboraldiz kanpo geratu dena saltzeko aukera baliatu dute komertzioek. Kontsumitzaileek, aldiz, merkeago erostekoa

## Txintzarri

Badira ondasunak azkar batean zaharkitzen direnak. Denboraldia igarota, zail izaten dute dendariak produktu horiei aterabidea bilatzea. Kontsumitzaileek ere askotan erosiko lukete denboraldiz pasatako produktuak, baldin eta merketago eskaintzen badizkiete. Hain zuzen, horretarako egiten dute Stock Azoka, Aterpea merkatarien elkarteak antolatuta. Kanpoaldean karpa batzuk jarrita, hamabost dendariak deskontu bereziekin zaharkitutako produktuak

eskaini zituzten ostiralean eta larunbatean. Eguraldi onak lagunduta, jende ugari gerturatu da denden erakusleho inprobisatuak bisitatzen. Ekimenak herritarren jakinmina piztu du, eta Lasarte-Oriako kaleetan giroa sortu du. Halere, TXINTXARRI-k jakin izan duenez, iazko datuekin alderatuta emaitzak ez dira hain onak izan.

## Hamabost aukera

Geroz eta gehiago dira Stock Azokan parte hartzen animatzen direnak. Aurten, hamabost establezimenduk jarri dituzte

denboraldiz kanpoko salgaiak erakusgai: Alba Moda, Donna Boutique eta Mabel Moda arropa dendek; Iturbe eta Leder zapata dendek; Olmi, Urruzola eta Aritza mertzeriak; Deco 75 etxeko ohialen dendak; Arregi etxe tresnak; Marbell ile apaindegiak; Kattagorri jolas dendak; Ines Flores artisautza dendak; Abreu bazarrak; eta Las-arte pintore estudioak.

## Halloween

Aterpea herriko merkatarien elkarteak Halloween egunean antolatuko du hurrengo ekitaldia.



Kattagorri jostailu dendako erakuslehoia. TXINTXARRI



Iturbe zapata dendako postua, larunbatean. TXINTXARRI



Bujagali herrixkako haurrekin lanean izan da Urtzi. Musikak edozein muga gainditu dezakeela ikusi du. URTZI AGIRRETXE

# "Irribarrearen Afrika ikusi dugu"

URTZI AGIRRETXE HEZITZAILEA

Trikitixa hartuta Urtzi Agirretxe herritarra Ugandan izan da hilabetez. Bujagali herrian haurrekin egindako lanak mugak gainditu ditu, sare sozialei esker

## Nerea Eizagirre

Mukwano Lagun erakundeak Mikel Laboaren *Txoria Txori* abestiaren bertsio berezia zintzilikatu zuen abuztuan eta geroztik 30 mila bat ikustaldi izan ditu. Irudietan Bugajali eskolako haurrak eta trikitixa eskuetan Urtzi Agirretxe (Lasarte-oria, 1987) dugu. Agirretxerekin izan gara proiektuari eta bideoi buruz hizketan.

## Nola jakin zenuen Mukwano Lagun Gobernu Kanpoko Erakundearen proiektuari buruz? Nolatan erabaki zenuen Ugandara bidaiatzea?

Azken urtean, buruan bueltaka neukan Afrikara joan nahi nuela. Lagun bat Etiopian egona zen,

eta berarekin harremanetan jarri eta bertara joateko martxan jarri nintzen. Ez nuen erantzunik jaso. Azkenean, beste lagun batek Facebook bidez Mukwano lagun proiektuaren berri eman zidan, eta beraiekin harremanetan jarri eta aurrera egin nuen proiektuan murgiltzeko.

## Zein da bertako egoera?

Guk gure begiekin ikusi duguna, egia esan, irribarrearen Afrika da, irribarre asko ikusi ditut, batez ere umeena. Umeak hurbiltzen zitzaizkizun irribarre batekin, galdetzer, ukitzera, jolastera, etab. Bertan haurrek ia jostailurik ez dute, eta edozein gauzeekin jostailuak egiteko gauza dira, imajinazio eta kreatibitate

gaitasun handia dute. Baina badakigu familia bakoitzaren atzean arazo asko daudela, osasun arazoak batez ere, IHESA, malaria, pneumonia, desnutrizioa etab.

## Ugandako gazteen osasuna eta heziketa bermatu nahi ditu Mukwano Lagun erakundeak.

Proiektu hau Sabin Gabilondorekin hasi zen duela hamar urte Bujagali herrian, eta umeengan arazo hauei guztiei laguntza emateko asmoz sortu zen. Ume asko dago kalean, hezkuntza ez da guztiz publikoa eta asko eta askok ezin diete eskolaratze gastuei aurre egin. Haur bakoitzaren urteko eskolaratzeak 45 euro balio du,

eta horrekin hezkuntza, eskolako uniformea, irakasleen soldata, eskolako materiala eta bazkalorduan artoarekin egindako purea sartzen da. Horretan laguntzen du Mukwanok.

## Zer da afrikastola? Zer nolako hezkuntza maila dute?

Afrikastola ikastetxe bat da eta bertan 500 hurrek ikasten dute. Afrikastolan ere beraien ama hizkuntzan ikasten dute eta ez dute ingelera hutsean ikasten. Uganda Ingalaterrako kolonia izan zen eta ingelesa hizkuntza ofiziala da, baina badira beste 70 bat hizkuntza ere. Mukwano lagunetik beraien ama hizkuntza (lusogera) indartu egiten da.

Ni pertsonalki, irakaslea naiz lanbidez, eta hasiera batean bertako metodologian laguntzeko asmoa nuen, baina haiek irakasle onak dituzte nahiz eta eskola zaharrekoak izan, ongi lantzen dituzte ikasi beharreko gai ezberdinak. Idazten oso onak dira.

## Baina elkartasunezko lanaz gain, herrialdea ezagutzeko aukera ere izan duzue, ezta?

Bai, noski. Hasierako helburua beti izan zen beraien bizimodua ezagutzeko, beraiekin bizitzea eta horrela egin genuen. Aste bukaeretan irteerak egiten genituen. Murchison parke naturala ezagutu genuen, bertan safaria eginez, baita Nilo ibaian zehar sei orduko rafting jaitsiera ere. Eta noski, Bujagali herria eta bere inguruak. Nilo ibaia bertan jaiotzen da, eta bizitza asko ematen du. Leku ikusgarriak daude parajeez gozatzeko.

## Trikitixa soinean eraman zenuen...

Trikitixa soinean eraman nuen bai, bertan akordeoia deitzen zioten. Trikitixari guk, euskaldunok, deitzen diogu *trikitixa*, baina, akordeoi bezala European eta Latinoamerikan ia edozein lekutan aurki dezakezu. Afrikan, berriz, ez.

Mukwano lagunekoekin harremanetan jarri nintzen, hasierako galderak izan ziren, "eta zuk zer eskaini dezakezu?" Beste gauza batzuen artean trikitilaria nintzela esan nuen. "Ba primeran! Eramango duzu, ezta?" Gauzak horrela, Ugandara trikitiarekin joan nintzen.

Egia esan beraiek oso pozik zeuden, gehienek akordeoi bat sekula ikusi gabeak ziren.

## Gure kultura eta doinuak irakastea zenuen buruan?

Gure kultura eta doinuak ezagutaraztea ez zen gure helburua, ezta pentsatu ere. Helburua hasieratik musikak transmititzen duen poza transmititzea eta musikak mugarik ez duenez beraien kantuekin konektatzea zen.

Konexioa egitea oso erraza izan zen, ni egunero eskolara joaten nintzen trikitiarekin, eta haur hezkuntzatik hasita, gelaz gela pasatzen nintzen ingelera haur kantuak abestera.

Lehen hezkuntzako haurrekin hori ezin nuenez egin, azterketa garaian zeudelako, arratsaldeko azken orduan ikastetxeko haurren koral bat egin zuten. Haiek bazituzten abestiak eta ni trikitiarekin poliki-poliki loturak egiten hasi nintzen.

Hor sortu zen konexioa! Eta egia esan, horrelako momenturik ez dut sentitu sekula. Afrikan (Ugandan), haurren koro batekin, trikitia eta ni; hor sortzen zen musika eta konexioa. Ikaragarria. Gauzak horrela, horretan jarraitu genuen lanean.

## Interneten oso ezagunak egin dira Txoria txori abestiaren eta trikitiaren doinuak dantzatzen den umearen bideoak. Ezusteko handia izango zen, ezta?

Bideoak grabatzen hasi ginen, eta Facebookeko Mukwano lagun orrian zintzilikatzen genituen. Arrakasta izan zuten ingelera abestutako kantu horiek.

Gauzak horrela zihozela eta azken astean murgilduta nengoela ikusirik, Mukwano laguneko partaide baten eskutik proposamen bat heldu zitzaidan, "Urtzi eta zergatik ez duzu frogatzen haurrek eskaraz abes dezaten?"

Haien hizkuntza lusogera da eta euskara bezala irakurtzen da. Mikel Laboaren *Txoria txori* arbelean idatzi eta pixkana, trikitixaren laguntzaz, forma hartzen joan zen bideoan grabatu eta Facebookean jarri genuen arte. 24 ordu baino gutxiagoan 10.000 ikustaldi. *Teleberrian* atera zen, irratia deika nuen elkarrizketa egiteko... Eta gu, txundituta.

Gauzak horrela, konturatu ginen, Mukwano lagun proiektua ezagutaraztea lortu genuela. Euskal Herrian jende eta erakunde askok proiektu honetan laguntzen du, eta bideoak haiek eskainitako laguntza eskertzeko modu bat izan ziren.



Kansalako bizilagunak, eta lasarteoriarrak elkarrekin ateratako talde argazkia. Atzean eurek margotutako zuhaitza. MARI KARMEN ORMAZABAL

# "Eraman duguna baino askoz gehiago ekarri dugu bueltan"

**ESTITXU GARMENDIA** DINBI BANDA KO BATUKADA TALDEKO KIDEA

Senegalen hamabost egun igaro ditu batukada taldekoekin, eta beste zenbait herritarrekin. Herrira itzuli diren arren, Afrikan jarraitzen du bere buruak oraindik

## Maddi Noriega

Lasarte-Oriatik Senegalera, Kansalara bidaia egin du Estitxu Garmendia (Lasarte-Oria, 1976) Lasarte-Oriako Dinbi Banda batukada taldeko kideak. Senide eta lagunekin batera, hamabost eguneko egonaldia egin du bertan, eta *dun dun*-aren eta *dejembe*-aren erritmoak ikasita itzuli da herrira.

Bertan bizitakoekin berri eman, eta esperientzia kontatzeko TXINTXARRI-rekin bildu da.

## Nolatan sortu zitzaizuen Senegalera joateko aukera?

Dinbi Banda elkartean helburu desberdinak adosten ditugu urtero. Orain dela bi urte, sorkuntza lanetan hasi zen lantaldetxo bat, eta formakuntza desberdinen bilaketan aukera hau aurkitu genuen; formakuntza jasotzeko aukera bidaia baten bitartez.

## KaayTa ToToproiektuarekin elkarlanean egin duzue bidaia.

Bai, hala da. Silvia Torrijos Baolar elkarteko kideak, eta Bamba (Kansalako bizilaguna) Accio

Internacionaleko kideek elkarrekin osatutako proiektua da *KaayTa ToTo*.

## Eta zein da proiektu horren helburua?

Bidaiarien bitartez, bertako jendea lana sortzen laguntzeko martxan jarritako proiektu bat da. Horrekin batera, bidaien %10 proiektuetan inbertitzen dute; auzoetara edateko ura eramaten dute, besteak beste. **Nola antolatu zenuten bidaia. Nolakoa izan zen joan aurretiko prestaketa.**

Aurrez aipatutako formakuntza bilaketa horretan, bidaiaren aukera azaldu zitzaigun, eta berehala

harremanetan jarri ginen Madrilgo Baolar elkarteko Silvia Torrijosekin. Senegalera joan baino lehen, berak gidatu gaitu antolaketa guztian.

Bidaiaren aitzakiarekin, dantza afrikarren saio bat antolatu genuen taldekideentzat Arantza Iglesiasekin, eta zuzeneko musika izan genuen bertan. Bibiche Sambou Tourek *dejembe*-a jotzen zuen, eta beste musikari batek *dun-duna*. Bertan ezagututako afrikar erritmoengatik sortu zitzaigun zaletasunaren hazia.

Silvia eta Cristina Baolar elkarteko kideak gonbidatu genituen saio honetara, eta, dantza saioaren ondoren, afaltzera joan ginen. Bidaiaren inguruan zalantzak argitzeko eta elkar ezagutzeko aukera izan zen hura. Taldean garai hartan ez zegoen oso garbi nork bidaiatuko zuen, baina denon artean gehienek ahal genuen data adostu genuen.

## Zein data izan zen hori?

Abuztuko lehen hamabostaldia. Silviak data hori Dinbi Bandako kideontzat erreserbatu zuen, Aste Santura arte beste inori aukerarik eskaini gabe.

## Eta azkenean, taldekoez gain, jende gehiagorekin batera egin duzue bidaia, ezta?

Bai, azkenean taldeko zazpi lagun joan gara. Gurekin batera, hiru senitarteko gehiago gehitu ziren, eta hamar laguneko taldea osatu genuen hasieran.

Inguruan bidaiari buruzko informazioa zabaltzen joan zen, eta herriko lagun batek joateko nahia azaldu zuen, bi lagun gehiagorekin batera; Mari Karmen Ormazabal, Pili Romero eta Ane Miren.

Plaza guztiak betetzen ez genituenez, Aste Santutik aurrera, publiko guztiarentzat ireki zuten bidaian parte hartzeko aukera, eta Gasteizeko bi lagun, eta madrildar bat gehiago gehitu ziren gurekin batera. Guztira, hamasei laguneko txanda bat osatu genuen azkenean. **Bidaiara joan aurretik, materiala eta sendagaiak biltzeko kanpaina bat egin zenuten.**

Senegal ezagutu gabe, bagenekien behar desberdinak aurkituko genituela bertan, eta, horregatik, Silviari galdetu genion zeintzuk izango ziren bertako behar nagusiak.

Egon garen zonan 30 urtez gerra batean murgilduta egon dira. Argindarra orain dela lau urtetik besterik ez dute.

Horren aurrean, Dinbi Bandako kideak erabaki genuen Lasarte-Oriako jendea, eta inguruan ditugun ezagunei bakoitzak ahal

zuen moduan laguntzeko deialdia zabaltzea. Horregatik egin genuen bilketa.

## Eta zein erantzun izan zuen herriak?

Oso erantzun ona izan zuen deialdiak, benetan eskertuak gaude jasotako erantzunarekin. Zoragarria da jendeak horrelako erantzuna eman izana. Ezinezkoa izan da bildutako guztia eraman ahal izatea, baina beste elkarte, eta behar dutenen artean banatuko dugu eraman ezin izan duguna.

## Eta hemendik eramandako gauza materialez gain, zer eraman duzue Senegalera?

Ez zait iruditzen gauza askorik eraman dugunik hemendik; eraman duguna baino askoz gehiago ekarri dugu bueltan. Maitasun asko jaso genuen, eta gu ere hori bueltatzen saiatu gara. Horretaz gain, gure musika, kultura eta hizkuntzaren berri ere eman diegu. Eman dieguna izugarri eskertu dute, eta gu ere oso eskertuta gaude beraiekin.

## Zuen batukadako instrumentuekin joan zineten?

Ez, ez genituen gureak eraman, baina bertakoekin instrumentuekin, *dun dun*-arekin eta *dejembe*-arekin aritu gara gure erritmoak jotzen. Soinu altuak lortzeko, botilekin ere aritu ginen. Gure musika tresnak falta genituen, eta ez ginen oso fin ibili, baina zerbait egin genuen.

## Musika eta dantza izan dira orduan zuen eguneroko zeregin nagusiak.

Bezperan adosten genuen hurrengo eguneko plana.

Arratsaldero formakuntza jasotzen genuen, eguzkia gordetzen zenean izaten zen; lehenengo perkusioa eta gero dantza. Gauetan terrazara igotzen ginen Picken [bertako biztanlea da] zuzeneko musikaz gozatzen.

Momentu horietan, bertako antzinako istorioak kontatu dizkigute abestien bitartez. Gure erara, baina abesti dezente ikasi genituen.

Egun batzuetan herrira, Abenerea edo Kailora irteerak ere egin ditugu. **Zein hizkuntzatan komunikatu zarete bertakoekin?**

Senegaleko hizkuntza ofizialak frantsesa eta wolofa dira. Gure taldean batek bakarrik hitz egiten zuen frantsesa. Bamba Bartzelonan bizi da urteko hilabete batzuetan, eta espainolez primeran hitz egiten du. Bi hizkuntza ofizialez gain beste mandinga, yola ere hitz egiten dira.

Elkarrizketaren bertsio luzea [www.txintxarri.eus](http://www.txintxarri.eus) atarian dago irakurgai.

# Herritarrak, Kataluniako galdeketaren atarian

## Txintxarri

Zentzu askotan Katalunia eta Euskal Herria oso gertu daude. Baita Lasarte-Oria eta Katalunia ere. Asko dira herrira bizitzera etorritako katalanak, baita lanera edo ikastera hara joandako lasarteoriatarrek. Horregatik, herrian oso gertutik jarraitu dira azken urteotan Kataluniako albisteak, eta, bereziki, orain urte batzuk abiatutako burujabetza prozesua.

Oztopoak oztopo, igandean dira egitekoak independentzia erreferenduma Katalunian. Eta

galdeketaren atarian, Katalunian bizi diren lasarteoriatarrekin, eta herrian bizi diren katalanekin hitz egin du TXINTXARRI-k, erreferenduma sortutako giroari eta sentimenduei buruz hitz egiteko.

Kataluniako auziari arreta handiz erreparatu zaio herrian. Sortutako harrabotsaren adierazgarri, Lasarte-Orian hainbat ekitaldi izan dira erabakitze eskubidea defendatzeko.

Esaterako, joan den astean udaletxe aurrean kontzentrazioa

egin zuten dozenaka herritarrek, EH Bilduk deituta, Espainiako Gobernuaren jarrera gaitzesteko eta katalanei elkartasuna adierazteko.

## Manifestazioa, Okendo plazan

Atzo manifestazioa egin zuten, Okendo plazan. Lasarte-Oriako EH Bilduk antolatuta. *Kataluniaren alde, Demokraziaren alde* lelopean iganderako babesa erakutsi zieten herritarrek. Pablo Barrio EH Bilduko zinegotzia Katalunian begirale bezala arituko da igandean.

## Galdetegia

- **1.-** Zer giro dago Katalunian, erreferendumaren atarian?
- **2.-** Zenbateraino gaiztotu du giroa Espainiako Gobernuaren erantzunak?
- **3.-** Jendeak kaleak bete ditu egunotan. Zein jende mota da manifestatzera atera dena?
- **4.-** Erreferenduma dela eta, gizartea erdibituta dagoela nabaritzen al duzu?
- **5.-** Euskal Herritik elkartasun mezu ugari bidali dituzte (baita Lasarte-Oriatik). Nola hartu dituzte mezu horiek katalanek?
- **6.-** Urriaren 1ean erreferenduma egitea lortzen badute, zure ustez, izango al du berme nahikorik zilegia izateko?
- **7.-** Zer gertatuko da, zure ustez, urriaren 1etik aurrera?

**Garazi Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan Soziologia eta Estatistika ikasten ari da. Hirugaren urtea du hau, eta beste bi geratzen zaizkio. Izarrek bi aste egin ditu Bartzelonan; Seneka programari esker, Jarduera Fisikoa eta Kirolaren Zientzien graduko hirugarren kurtsoa bertan egingo du.**

1.- Tentsioa, ilusioa, talde-lana... Azken batean mugimendua da ikus daitekeena, ziurgabetasuna eta jakin-mina orobat. Kazeroladak egiten dira gauero hiri osoan zehar, manifestazioak, hitzaldiak, grebak, kontzertuak... bizirik ikusten da kalea. Guretzako esperientzia aberasgarria izaten ari da oso, bertara atera eta elkarbanatzen dugun helburuaren aldeko borroka sentitzeak emozioa sentiarazten baitigu.

2.- Gobernuak errepresio bidezko erantzuna eman izanak, elkarriketa bidez adostasun batera iristen ahalegindu beharrean, jendea batu eta kalera ateratzera bultzatu du. Horrez gain, erreferendumaren inguruan iritzirik ez zuen jendeak honen aldeko iritzia agertzea ere ekarri du. Eta, azken batean, eztabaidagaia independentziaren alde egon edo ez soilik izatetik, demokraziaren aldeko borroka ere izatera pasatu da.

3.- Mota guztietako jendea atera da kalera, iritzi bat osatzen hasi berri diren gazteetatik hasita, jubilatuetaraino. Jendea norbere ideologia, klase soziala, egoeraren gainetik, helburu beraren alde borrokatzeko batu da.

4.- Oro har, erreferendumaren aldeko mugimendua gailentzen da; kalean batasuna bakarrik ikusten da; nahiz eta, galdeketaren barruan batzuk independentziaren aldeko jarrera agertu eta beste batzuk kontrakoa.

5.- Katalanek esker onez hartzeaz gain, beharrezkotzat jotzen dute haiekiko elkartasuna adieraztea, azken finean bi herrialdeek helburu komun bat baitugu.

6.- Bertako jendea konbentziturik ikusten da erreferendumaren zilegitasunari dagokionez; nahiz eta, agerikoa den gobernuak bere esku dagoen guztia egingo duela hala ez izateko.

7.- Dударik ez dugu historikoki pauso handi bat izango dela eta bide asko irekiko dituela, baiezkoa edo ezezkoa atera.



**IZAR AGIRRETXE  
ETA GARAZI ALKORTA,  
LASARTE-ORIA**

**Duela hamar urte Lasarte-Oriatik Bartzelonara joan zen bizitzera. Biolinjolea da, eta Teatre del Liceuko Opera orkestran plaza du. Katalunian du bizitza.**

1.- Egia esan, giroa pizten joan da azken bi hiru urteetan, eta azken hilabeteetan gehiago eta gehiago polarizatzen ari da.

2.- Ez dut ulertzen jarrera hori: egunero komunikabideetan kritikatu, mila modutara zirikatu, eta, era berean, kontutan hartu ez.

3.- Denetik egia esan, jubilatuta edo edadetu asko, eta baita gazte, heldu, umeak... denetik dago.

4.- Bai, geroz eta gehiago tentsioa nabari da, polarizazioa, erradikalizazioa. Aurreko astean, adibidez, *Cara al sol* ohiuka kantatzen zebilen gazte bat nire etxe inguruan

5.- Oso zoriontsu. Lagun kataluniar askok berbidali dizkidate Euskal Herritik egindako bideo solidarioak, eta ilusio handiz jaso dute elkartasuna.

6.- Lehenengo zilegitasuna, eta, niretzat, garrantzitsuena da bozkatu ahal izatea. Horrek sortzen du tentsio gehien. Gero, legalki zein erabaki eta neurri hartuko den, abokatu eta epaileen esku egongo da, ziur aski, horrela dugulako eraikia gure gizartea.

7.- Ziur dudan gauza da (ezer arrarorik pasako ez balitz behintzat) astelehena urriaren 2an lanean arituko naizela, ahal dudan umore onenean, egunero bezela.



**ASIER SUBERBIOLA,  
LASARTE-ORIA**



**47 urte ditu, eta txiki-txikitatik bizi da Lasarte-Orian. Puigvert herrian jaio zen, Lleidan, baina urtebete zuela gurasoekin etorri zen Euskal Herrira. Halere, harreman estua du Kataluniarekin. "Euskal Herriaren eta Kataluniaren artean bihotza erdibitua dut. Katalana eta euskalduna sentitzen naiz". Urtean bitan itzultzen da jaioterrira. Azkenekoz, orain dela hamabost egun izan zen.**

- 1.- Herri bat nahi dute izan. Urte asko daramate borroka horretan. Oso urduri daude, haserre. Tentsio asko nabaritu dut egon naizen azken aldietan. Bozkatu besterik ez dute egin nahi; emaitza gutxienekoa da orain. Kanean beste gairik ez dago. Pil-pilean dago gaia.
- 2.- Indartu egin du haien pentsamoldea. Lehenago zalantza zutenek argi dute orain. Oro har, gazteak dira argien dutena, eta helduagoek eta zaharrek zalantza gehiago dituzte. Baina Espainiako Gobernuaren jokamoldeak bozkatzearen aldeko jarrera indartu du.
- 3.- Denetarik. Telebistako irudietan ikusten da: zaharrak, gazteak, ikasleak, irakasleak, umeak... Mota guztietako jendea atera da kalera.
- 4.- Hasieran zatituagoa zegoela esango nuke; orain, ez horrenbeste. Gutxiengo dira bozkatzearen alde ez daudenak. Gertaerak azkar pilatu dira, egun gutxian gauza asko gertatu dira. Jendea itxaroten ari da, igandean zer gertatuko zain.
- 5.- Oso harro daude gutaz. Nik hango jendearekin hitz egin dut, eta hemengo argazkiak bidali dizkiet. Aspaldikoa da Euskal Herriaren eta Kataluniaren arteko harremana.
- 6.- Bozkatzea lortzen badute, dagoeneko aurrerapauso handia izango da. Hasieran pentsatzen nuen ez zutela lortuko, baina orain konbentziturata nago. Gainera, uste dut baiezkooa aterako dela. Azken unera arte ezin da jakin zein baldintzatan bozkatuko duten. Poliziez bete dute Katalunia; ikusiko da posible ote duten bozkatzea. Ez dakit zer gertatuko den urriaren 1etik aurrera.



**MARIAN BUENO,  
PUIGVERT**

**Mataro du jaioterrria Isaac Farrek, eta ia bizitza guztia eman du han. Orain dela bost urte iritsi zen Lasarte-Oriara, familia ia osoa han utzita. Lagunak, lehengusuak, anai-arrebak eta gurasoak bisitatzeraz joan ohi da maiz, hiru hilabete behin. Orain gutxi izan zen azken aldiz, Diada egunean, hain zuzen.**


- 1.- Kataluniako auzia, nolabait deitzearren, ez da baiezkooaren eta ezezkoaren inguruan. Herri baten askatasunari buruzkoa da. Herri hori ez da eroso sentitzen Espainiarekin duen harremanarekin, eta harreman horrekin eroso sentitzen direnekin batera bozkatu egin nahi dute. Alde handia dago hedabideek kontatzen dutenaren eta nik han ikusten dudaren artean. Baina soka asko ari da tenkatzen, eta askatasun asko ari dira murrizten; lehertze dago egoera.
- 2.- Espainiako Estatuak rol oso alderdikoa jokatu du. Ez du gobernu bat bezala jardun, ideologikoki orain dela 40 urteko Espainiaren ideia duen alderdi bat bezala baizik. Eta oso urrun dago hori Katalunian pentsatzen den modutik.
- 3.- Madrilgo hedabideetan esaten denaren kontrara, askotariko jendea ari da ateratzen kalera, ideologia eta alor sozial oso desberdinetako jendea. Batez ere, Espainiako Gobernuaren erantzunaren ondoren. Baiezkooaren eta ezezkoaren aldeko gehienek eskubide zibilak urratu dituzte, eta askatasunaren aldeko aldarria egiteko batu dira.
- 4.- Azken zundaketari erreperatuko bagenio, Azaroaren 9ko kontsultari, %48 daude independentziaren alde, eta %52 aurka. Baina hauteskunde orokor batzuetan ere zatitu egiten da gizartea, jende guztiak ez dio alderdi berari bozkatzen. Triste da; %52 hori aipatzen denean, gehiengotzat jotzen da. Eta %48 horri buruz hitz egitean, ordea, baztertu egiten dira, %5 izango balira bezala.
- 5.- Emozio handiz jaso dira elkartasun mezu horiek guztiak. Eskertuta dago jendea babesaregatik, baita independentista ez direnak ere.
- 6.- Zoritzarrez, ez dut uste, Espainiako Gobernuaren erruz. Ez du arazo hau auzi politiko gisa hartu, baizik eta ikuspuntu judizial batetik. Akats oso larria. Halere, jendea bozkatzeraz aterako da, hautetsontziak egon edo ez. Manifestazio jendetsuak egingo dituzte.
- 7.- Ez dago argi etorkizuna. Logikoa litzateke parlamenturako hauteskundeak aurreratzea. Hoberena litzateke kontsentsua egotea, eta alde guztien artean legezko erreferendum bat adostea, berme guztiekin.



**ISAAC FARRE,  
MATARO**

**Urtarrilean etorri zen bizitzera Lasarte-Oriara, bere bikotekidea hemengoa da eta. Bartzelonan ikasten ezagutu ziren. Bartzelonara joan da erreferenduma bertatik bertara bizitzera.**

- 1.- Giro positiboa dago. Joan nintzenetik aldaketa txiki bat sumatu dut: urduritasuna da nagusi. Egon naizen lekuetan behintzat, Sants, Gracian, jendea animatua dago, beldur pixka bat ere badago... baina, orokorrean, aurrera egiteko prest daude.
- 2.- Azken egunetako berriek diotenez, Fiskaltzak eskola guztiera joateko eskatu die mossoei. Jendea kezkatzen hasi da. Hala ere, auzoetan enkarteladak eta elkarretaratzeak egiteko deia dago. Bertan asteburuari nola aurre egin ere azaltzen ari dira.
- 3.- Mota eta adin askotarikoak atera dira. Atxiloteten ostean, ez nuen uste zenbait pertsona aterako zirenik, gainera, "independència" eta "Fora les forces d'ocupació" oihuka. Aldaketa izan da. Errepresioak hori du. Ate guztiak ukitzen dituenen, jendea kalera aterarazten duela, nahiz eta urte asko izan ateratzen ez denik.
- 4.- Auzoetan ikusten da, kartelak kenduta, eztabaidak... Bi aldeak asteburuari begira zer egin ikusten ari dira. Nik Bartzelonatik hitz egiten dizut, Gracia auzoko ikuspegitik, baina herrixka eta auzo bakoitza ezberdina da. Bartzelonako auzo batzuetan alde daudela ikusten da, baina badago auzorik estelada edo pankartarik ikusten ez duzuna. Beti izan da horrela, eta orain ez da aldatuko.
- 5.- Jendeak argazkiak jaso ditu, elkarretaratzeak eta karteladak. Bilboko manifestazioaren berri izan dute, eta harritu egin ziren. Orain ilusioa dute, Euskal Herriko jendea etorriko delako. Pozik daude. Laguntza beti izango da ongi etorria.
- 6.- Gertatutakoa gertatuta, ahal dena egiten ari dira guztia ongi joan dadin. Orain, asteburura begira ari da jendea, gaur eta bihar zer gertatzen den ikusi nahi dute, eta igandea guztia normaltasunez joatea.
- 7.- Gertatzen denaren arabera, batzuk greba orokorrera deituko dute. Hau show bat izan daiteke. Auzoaren edo ideologiaren arabera, emaitzak ontzat hartuko dituzte edo ez. Gobernutik aurrera egiten bada, nahiz eta guztiak atxilotu, txarrean jarrita, uste dut jendea haien alde egongo dela. Ezezkoaren aldeko Espainiako Gobernuak esandakoari men egingo diote. Baina nire ustez A, B eta C planak daude, emaitzaren arabera.



**MARC BAGES,  
BARTZELONA**

# Igeriketaren ikuspegi guztiak zabaltzen

2017-18 denboraldiari ekin dio Buruntzaldea IKTk, Gipuzkoako Federazioko galan zortzi sari jasota. Baina haurrentzako eskaintzaz gainera, Master, Estiloak eta Triatloi atalak zaintzen ditu taldeak, igeriketaren alor guztiak zabaltzeko helburuz

## Txintxarri

Buruntzaldea IKT denboraldi berriari murgildua dago dagoeneko, eta talde bezala hazten jarraitzeko helburuak argi ditu. Alebina, infantilen eta juniorren taldeek ongi lehiatu dute pasa den ikasturtean, eta emaitzei eusteko hasi dira entrenamenduak prestatzen. Horren erakusgarri pasa den astean Gipuzkoako Federazioko Galan jasotako sariak: zazpi banako sari eta taldekako bat. Baina Buruntzaldea IKTk igeriketaren ikuspegi zabala eskaini nahi du, eta, horretarako, hiru atari arreta berezia prestatu die: Masterrak, Estiloak eta triatloiarri.

"Orain arte egin dugun guztia lantzen eta hobetzen jarraituz, nahi ditugu hiru lerro horiek indartu", azaldu dio TXINTXARRI-ri Borja Apeztegia Buruntzaldea IKTko arduradunak. Masterrak atala lehendik martxan jarri dute, eta emaitza onak eman dizkie. "Urtero 30-40 igerilari



Leire eta Ainhoa Martin ahizpek jaso zuten saria, besteak beste. BURUNTZALDEA IKT

dauzkagu, bakoitza bere helburuarekin". Astearen hirutan entrenatuko dute, eta ordutegi desberdinak daude eskuragarri.

Aurten triatloi atala sortu dute. Modu horretan, kirol horretan dabilzan aukera izango dute igeriketa entrenatzeko. "Ez da talde bezala lehiatzeko, baizik eta beste triatloi taldeetan daudenei aukera emateko entrenatzeko".

Bestalde, igeriketa hobetzea helburu duenak badu era parte hartzaile batean horretarako atal berezi bat. Estiloak atala astegunetara pasako dute: 2006. urtea baino lehen jaio direnentzat, errendimenduzkoa ez den igeriketa mota. Astearen bitan entrenatuko dute, astearte eta ostegun arratsaldetan. Informazio gehiagorako, <https://buruntzaldeaikt.blogspot.com/>



Ventanas Isu Leihoak taldeko futbolariak, defentsa lanetan. TXINTXARRI

## Areto futboleko herriko taldeek galdu egin dute etxez kanpo

Ventanas Isu Leihoak izan da garaipena eskuratu duen talde bakarra: 3-2 gailendu da azken unean, etxean

### Txintxarri

Denboraldia hasi dute Lasarte-Oriako areto futbol talde ia guztiek (neskek eta azpiko kategoriakoek urrian hasiko dute). Mutilen seniorren hiru taldeek jokatu zuten denboraldiko lehen partida ofiziala: Eguzki-Carpinterias Antonios taldeak liga hasi zuen, Estatuko Hirugarren Mailan, baina ezin izan zuen emaitza positiborik atera Basauritik; Soloarteren aurka 4-2 galdu zuten lasarteoriarrek. Bestalde, Gipuzkoako Kopa hasi duten beste bi taldeek zapo gazi-gozoa

utzi dute. Ventanas Isu 3-2 gailendu zitzaion Lauburu Ibarrari, herriko Maialen Chourraut kiroldegian. Ceicilia Frutedendak, ordea, kopan jarraitzeko aukera guztiak galdu zituen: 2-5 galdu zuen Ataunen.

### Partida zaila

Partida zaila zuten Eguzki-Carpinteria Antoniokoek. Galtzen hasi ziren, eta bitan izan zuten partida berdintzeko aukera. Zorteak ez zien lagundu, eta azken zatian errenta handitu zuten etxeok. Asteburu honetan atsedena dute.

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

<b>FUTBOLA</b>
<b>AFIZIONATUA GORENGOEN MAILA</b>
<b>Mariño CD - Ostadar SKT</b> Larunbata. 17:30. Iruñen.
<b>JUBENILEN OHOREZKO MAILA</b>
<b>Ostadar SKT - Elgoibar CD</b> Larunbata. 17:15. Michelinen.
<b>JUBENILEN LEHENENGO MAILA</b>
<b>Ostadar SKT - Sane B</b> Larunbata. 15:30. Michelinen.
<b>KADETEEN OHOREZKO MAILA</b>
<b>Añorga KKE - Ostadar SKT</b> Larunbata. 10:30. Añorgan.
<b>KADETEEN LEHENENGO MAILA</b>
<b>Lazkao KE - Ostadar SKT B</b> Igandea. 12:00. Lazkaon.
<b>INFANTIL TXIKIAK</b>
<b>Ostadar SKT - Vasconia CD</b> Larunbata. 11:00. Michelinen.
<b>LURRALDE MAILA</b>

<b>Ostadar SKT - Zarautz KE</b> Igandea. 10:30. Michelinen.
<b>LEHENENGO MAILA</b>
<b>Madrid CFF- Reala</b> Larunbata. 16:00. San Sebastian de los Reyes, Madrilan.
<b>BIGARREN MAILA</b>
<b>Osasuna CA - Añorga KE</b> Igandea. 12:00. Iruñean.
<b>ARETO FUTBOLA</b>
<b>SENIORREN GIPUZKOAKO KOPA</b>
<b>Ventanas Isu Leihoak - Teilatuberrri Zaldibi</b> Ostirala. 20:30. Maialen Chourraut kiroldegian.
<b>SASKIBALOIA</b>
<b>ERRENDIMENDUKO JUNIORRAK</b>
<b>Ostadar SKT - Easo Zelaia</b> Larunbata. 16:00. Maialen Chourraut kiroldegian.
<b>PARTIZIPAZIO JUNIORRAK</b>

<b>Ibaeta Bera Bera Monpas - Ostadar SKT B</b> Igandea. 10:00. Yoldi kiroldegian, Donostian.
<b>ERRENDIMENDUKO KADETEAK</b>
<b>Aletico San Sebastian - Ostadar SKT</b> Igandea. 10:00. Yoldi kiroldegian, Donostian.
<b>PARTIZIPAZIO KADETEAK</b>
<b>Ostadar SKT - CD Internacional</b> Larunbata. 09:30. Maialen Chourraut kiroldegian.
<b>ERRUGBIA</b>
<b>OHOREZKO B MAILA</b>
<b>Eibar RT-Babyauto Zarautz KE</b> Larunbata. 11:00. Unben, Eibarren.
<b>EUSKAL LIGA</b>
<b>Avia AZ-Babyauto Zarautz KE</b> Larunbata. 16:00. San Txismen, Igorren.
<b>OHOREZKO MAILA</b>


<b>Bartzelona- Hernani</b> Igandea. 16:00. San Txismen, Igorren.
<b>OHOREZKO MAILA</b>
<b>Hernani CRE - Valladolid RAC</b> Igandea. 12:00. La Foixardan, Bartzelonan.
<b>PILOTA</b>
<b>ESKUZ BINAKA LEHENENGO MAILA</b>
<b>Intza - Tolosa Aurrera 2</b> Larunbata. 11:00. Mitxelingo frontoian.
<b>ESKUZ BINAKAKO HIRUGARREN MAILA</b>
<b>Intza - Legazpi</b> Ostirala. 20:00. Mitxelingo frontoian.
<b>DUATLOIA</b>
<b>EPIC LANDUS SWIMRUN</b>
<b>Lasarte-Oriako Trinko triatloi taldeko Iñigo eta Enaitz Ibarburu anaiak Epic Landus Swimrun proban</b>

<b>parte hartuko dute. Oinezko lasterketa eta igeriketa tarketatuko dituzte hainbatetan ibilbidean zehar.</b> Igandea. 09:00. Uribarri Ganboa urtegian.
<b>HERRI LASTERKETAK</b>
<b>EUSKAL KOSTA KROSA</b>
<b>Sei herritarrek parte hartuko dute Gipuzkoako kostako maratoni erdian. Zumaian hasi eta bukatuko da proba, eta kostako errepideetik beteko dute ibilbidea korrikalariek.</b> Larunbata. 17:00. Zumaian.
<b>LEITZULIA BTT</b>
<b>Hogei lasarteoriarrek parte hartuko dute Leitzulian. Mendiko bizikletarekin bete beharko dituzte ibilbideko 42 kilometroak. 1.400 metro desnibel positiboa du probak.</b> Larunbata. 09:00. Leitzan.

# PLAZAN BAZAN


## Txori Festa

Zer egiten dute txori hauek denek teiltuan geldirik?  
Oso galdera ona da, baina hurrengo baterako utziko dugu. Momentuz, bila ezazu parerik ez duen txoria. Hirukote bat ere badago, zeintzuk osatzen dute?



### Bikiak

Zazpi irudi hauek berdinak dirudite, baina ez dira berdinak. Aurki itzazu elkarren kopia diren bi irudiak.



Soluzioak: [www.plazanbazan.eus](http://www.plazanbazan.eus)  
Egilea: Garbine Ubeda



## Zatoz gurekin autobusez!

Urriaren 15ean, Lasarte-Oriatik Lesakara

Ordutegia:  
Irteera: 09:00etan Atsegindegin (Hernani) eta  
09:15etan Tajamar biribilgunean (Lasarte-Oria)  
Itzulera: 19:00etan Lesakan

Txartelak salgai:  
Urriaren 2tik 11ra Itakunen  
Geltoki kalea 4, Lasarte-Oria  
943 37 14 48 • [kultura@itakun.eus](mailto:kultura@itakun.eus)

Itakuneko bazkideek: **10€**  
Gainontzekoek: **12€**

Antolatzaileak:



# Inork ez zuen esan erraza izango zenik

Obretan dago Ostadar SKT oraindik. Puzzlea osatzeko falta diren piezak jartzen. Kontua da hasi dela liga honezkerok. Eta ez oso ongi, emaitzei dagokienez: bigarren partida, bigarren porrota. 0-1 galdu dute urdin-beltzek Martuteneren aurka

## Iñigo Gonzalez

Arerioek majo izerditu beharko dute Ostadar SKTri irabazteko. Ez dituzte puntuak oparitu Asier Aizpurua eta Ander Rekondoren mutilek. Hori bai, euren ere gogotik egin beharko dute lan puntuak zakuratzen hasteko. Hori da Erregional Preferentea: maila berdintsuko hamasei talde. Detaile txikiak erabakitzen dute nora doazen puntuak. Joan den larunbateko hirua Donostia aldera joan ziren. Detaile txiki batzuegatik, esan bezala. Michelinen aurreneko aritu ziren urdin-beltzak ligan. 0-1 galdu zuten. Lanean segi behar. Inork ez zuen esan erraza izango zenik.

Lehenengo zatian ez zen gauza askorik gertatu. Ostadar SKTk goian presionatu zuen Martutene, eta ez zion eroso jokatzeko utzi. Baloiarekin, ordea, arazo gehiago izan zituen eta ez zuen aukera garbirik sortu. Martutenek ere ez. Atsedendian, 0-0.

**Detaile txikiak, ondorio handiak** Berdin jarraitu zuen partidaren gidioak atsedendititik bueltan. Bi taldeek nekez lortzen zuten baloiarekin arerioaren ate ingurura iristea. Horrelakoetan, geldikako jokaldiak dira golak

## Lau hilabete eta gero, frontoira itzuli da Axier Arteaga

Hanketako lesio baten ondorioz, pilota kantxetatik urrunduta egon behar izan du Axier Arteaga pilotari lasarteoriatarak, baina garai zail horiei aurre hartu, eta lau terdiko txapelketa jokatu zuen atzo, Iruñako Labrit frontoian. Jon Erasun, Zizurkilgo gaztea izan zuen atzoko norgehiagokan aurkari Arteaga II.ak.



Talde oso gaztea dauka aurten Erregional Preferenteak. TXINTXARRI

sartzeko lanabes onenak. Martutenek jakin zuen baliatzen, eta 55. minutuan sartu zuen 0-1eko. Polemikoak izan zen gola: etxeok protesta egin zuten, Martutenek jokalaria falta egin zuela errepikatuz behin eta berriro. Hortik aurrera, neurketa hautsi zen eta kanpoko taldea Iñigo Otaegiren ate ingurura errazago iristen zen. Ostadar gogotik saiatu zen norgehiagoka berdintzen, baina ez zuen arriskua sortzen asmatu.

Bestalde, Intza Kirol Elkarteko pilotariak partidak izan zituzten iragan larunbatean. Lehen Mailako eskuz binakako pilotariak Sorluzen aritu ziren, eta 22-12-ko emaitza erdietsita amaitu zuten norgehiagoka Jon Pello Artetxek eta Asier Catalinak.

Hirugarren Mailakoak, berriz, Oñatin aritu ziren, eta azken unera arte lehia bizia izan bazen ere, 21-22ko emaitzarekin garaipena eskuratu zuten azkenean.

Gainera, hamabost minuturen faltan, jokalaria bat gutxiagorekin geratu zen Ostadar; Egoitz kaleratu zuen epaileak.

Azpitarragarria da larunbateko hasierako hamaikakoaren batez besteko adina: 20,36 urte. Etorkizuna badauka Ostadarrek. Geroa, ordea, orainetik hasten da eraikitzen. Material garrantzitsuenetako bat falta zaie urdin-beltzei, oraingoz: puntuak. Baina, orain arte bezala lanean jarraituta, etorriko dira.

## Irabaztetik oso gertu geratu dira saskibaloit taldeak asteburuan

Garaipenak lortzetik oso puntu gutxira geratu dira Ostadar SKTren saskibaloit taldeak. Errendimenduko kadeteek etxean jokatu zuten, eta 50-54 galdu zuten Beasainen aurka. Junior Errendimendukoak, berriz, 55-53 galdu zuten Hondarribiaren aurka. Azkenik, Partizipazioko juniorrek ezin izan zioten Atletico San Sebastiani irabazi: 44-45.



Munduko Txapelketa irabazteko faboritoetako bat da Chourraut. MAIALEN CHOURRAUT

## Munduko Txapelketan murgilduta dabil Chourraut

Sailkapeneko proba eta finalerdiak gaindituz gero, larunbat arratsaldean lehiatuko litzateke finalean

### Txintxarri

Asteazkenean izan zuen lehen lehia Maialen Chourraut piraguista lasarteoriatarak Munduko Txapelketan (Pau, Frantzia), eta domina eskuratzetik gertu izan bazen ere, ez zuen lortzerik izan. Atletico San Sebastian kirol elkartearen kide Irati Goikoetxearekin, eta Marta Martinez kataluniarrarekin batera, bosgarren postuan amaitu zuten, K-1-eko taldeak; 109.07 segunduko denboran amaitu zuten lehen proba.

Atzo hasi zuen bakarkako lana Lasarte-Oriako piraguistak. Sailkapeneko proba gaidintzen badu, larunbatean jokatu luke finalerdia. Eta finalera igaroko balitz, larunbat arratsaldean lehiatuko litzateke.

Chourraut da txapelketa irabazteko hautagaietako bat. Horretarako, Olinpiar Jokoetan erakutsitako mailari eutsi beharko dio. Lasarte-Oriakoak zilarrezko eta brontzezko dominak lortu ditu aurretik Munduko Txapelketetan, baina ez urrezkorik, oraindik.



TXINTXARRI

## Lehenengo irteera, Getxora

Gogotsu ekin diote ikasturte berriari Ostadar SKTren Ipar Martxa alorreko kideek. Eguraldi ezin hobea lagun, makilak eskuetan hartu eta Getxo aldera joan ziren larunbatean, eguna pasatzera. Goizean goiz, autobusa hartu zuten Michelinen. Bizkaia aldera iritsi, autobusetik jaitsi, eta, urratsez urrats, buelta ederra eman zuten Getxo aldetik.


## ZORION AGURRAK



**Oihane**  
Zorionak printzesa zure zazpigarren urtebetetzean.



**Ekain**  
Zorionak guapo, bost muxu pottolo pila-pila maite zaituzten Amaiur, aitaxo, aitona eta amonaren partetik.



**June**  
Zorionak maitia!



**Altuna**  
Zorionak! Ea zer prestatzen diguzun iganderako... "Takoneo" pixka bat? "Finito" batzuk ere hartu beharko ditugu, ezta? Muxu bat politta!

## TELEFONOAK

## UDALAREN TELEFONOAK:

ERREGISTROA: 943 371 629  
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184  
KIROLDEGIA: 943 376 182  
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 943 376 181  
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179  
KIUB: 943 361 605  
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621  
MUNTERI AEK: 943 372 863

## LARRIALDIKO TELEFONOAK:

OSASUN ZENTROA: 943 007 960  
DYA: 943 464 622  
GURUTZE GORRIA: 943 363 953  
UDALTZAINAK: 943 362 442  
ERTZAINAZA: 943 538 840  
SOS DEIAK: 112

## GUTUNAK

### Katalunia: demokratak ala legekratak, hor dago koxka

#### LASARTE-ORIAKO EHBILDU

Herriak agindu... ala legeak agindu, *that is the question*. Kataluniako prozesua deskalkifikatzeko, Raxoi "legala ez dena ez da demokratikoa" matraka ari da behin eta berriz errepikatzen. Legea = Demokrazia da unionisten ekuazioa.

Ba, ez. Demokraziak *demos*-a du oinarri, herria, herriaren gobernu, ez legearen gobernu, legekrazia baillizateke hori. Legea gizartean dagoen indar korrelazioaren kristalizazioa baino ez da. Espainiako legeak 78ko Konstituzioa du iturri: Armada eta botere faktikoen tutelapean idatzia. 2. artikulua kasuan, batasun banaezinarena, hitzez hitz idatzia. Francok inposatutako erregea, monarkia, bandera edota *txunda-txunda* ereserkia ezartzen ditu. Katalunia eta Euskal Herriari armen indarrez, kendutako gobernuak bueltatzen ez duena. Beldurra eta "plato de lentejas"

sindromepean onartua. Horregatik, ez diogu inongo zilegatasun demokratikorik onartzen Espainiako legeari.

Ez Konstituzioari ez eta harengandik abiatutako Trantsizioari ere. Egun batetik bestera, Armada, guardia zibila, polizia, TOP eta judikatura frankista demokratikoa bilakatu ziren. Franco Valle de los Caidos-en dago, tan pitxi. Hitler imajinatzen dugu halako monumentu batean Alemanian? Ba, hori da legekrtak defendatzen ari direna. EH Bilduko alkate bat beharko du Madrilek, Franco bere lekuan jartzeko? Hori da Espainiako Trantsizioa. Demokratok horren kontra egon gara beti.

Espainia Estatu monarkiko eta oligarkiko bat baino ez da. Ustela, ezinbestez. Bankuek eta IBEX-35ko enpresek politikari ustelen bidez kudeatutako erresuma. Azken 40 urteko esperientzia dugu frogara: kudeaketan egon diren guzti-guztiak daude zikinduta, %3aren kultura estrukturala. Barcnas, Gurtel, Punica... Filesa, Juan Guerra, Urralburu... Jordi Pujol,

Casinos kasua... Hemen? Hemen, kargua uztean zera esan zuen Bizkaiko Ahaladun Nagusiak: "Muchos pueden estar tranquilos, porque nunca escribiré mis memorias. A todos les digo que pueden estar tranquilos". Ondoren, Herri-Kontuen Euskal Epaitegiko lehendakari jarri zuten PNVk eta PSOEak. Atera kontuak.

78ko Trantsizioa apurtzeko dator Kataluniako prozesua. Une honetan, Castelaok esandakoa gogoratu nahi diogu Espainiako ezkerari: "Para que España pueda ser roja, primero ha de estar rota". Hau da, Espainia duin bat eraiki ahal izateko, Kataluniako eta Euskal Errepublikak duinak sortu behar dira, bestela jai.

Urriaren 1eko erreferenduma da, gaur eta hemen, posible den ariketa demokratikoa: *demos*-ari, herriari, hitza ematea. Hemen, Erreferendum = Demokrazia da benetako ekuazioa, eta horrek erabateko legitimitatea ematen dio Kataluniari.

Gaur eta hemen, Katalunian *o povo é quem mais ordena*, Grandolan bezala. Visca Katalunia!

## SUDOKUA

	3		6	1		2	4	8
1				9	4	6		
6	4		7	8		9		
	2	6	3	4		8		9
3			9	6		4		
4					7	3	6	
		4	1		9		8	
		3			6		2	4
		5	4		2		9	6

## OHARRAK

### San Pedro elizako katekesia

San Pedro elizan katekesiko kurtso berriari hasiera emango zaio. Irailaren 30a da izena ematea. LH1 mailakoek 11:30ean dute hitzordua, LH2 mailakoek 12:00etan eta LH3 mailakoek 12:30ean elizan bertan. Antolatzaileek ohartarazten dute, 9 urterekin lehenengo Jaunartzea hartzeko, katekesiko 3 urte egin behar direla. Horregatik, LH1 mailan dauden haurrek orain izena eman behar dute.

Era berean, katekesi saioak egun hauetan izango direla jakinarazten dute: LH1 maila, hileko 1. eta 3. larunbata, 11:00etan; LH2 maila, hileko 2. eta 4. larunbata, 12:00etan eta, LH3koek, berriz, hileko 1go eta 3. larunbata, 12:00etan.

### Euskal jaietako pintxo-potea

Euskal Jaietako lan taldearen izenean, taberna guztiei gonbita luzatzen diegu, Euskal Jaietan arratsalde-gau partean tabernak giroteaz gain, pintxo-potea ere eskaintzeko. Hala nahi izanez gero, gurekin jarri harremanetan 695 785 389 telefonoan.

### Biyak Bat elkarteko bidaietan lekua

Biyak Bat Erretiratuen elkarteak jakinarazi du urrian eta 2018ko maiatzean egingo dituen bidaietan izena emateko aukera dagoela.

Urriaren 16tik 25era Badajoz eta Jaenera joango dira elkarteko kideak; 2018ko maiatzaren 7tik 14ra, Mediterraneoan zeharreko bidaia egingo dute.

Informazio gehiago elkartearen egoitzan eskura daiteke.

### Gaurtik aurrera, ostiraletan egin ahal izango dira sexu kontsultak, Gaztelekuan

Sexu informazioa, eta aholkularitza bulegoan kontsultak egiteko eguna aldatu da. Hemendik aurrera, ostiraletan izango dute kontsultak egitera joateko aukera herriko gazteek, arratsaldeko 18:00etatik 20:00etarako ordutegian.

### Euskotren neguko ordutegia

Euskotrenen zerbitzuen neguko ordutegia indarrean dago. Honekin batera, lanegunetako zerbitzuak berreskuratuko dira. Euskotrenen geltokian, app-an edo web orrialdean ordutegiak eskuragarri daude.

## AZOKA TXIKIA

## ETXEBIZITZA

## ALOKAIRUA

Etxebizitza alokatzen da Sasota auzoan. Bi logela ditu eta berogailua etxe osoan. Telefonoa: 649 526 766.

## LANA

## ESKAERA

Esperientzia duen emakume euskalduna eskaintzen da haurrak zaintzeko edo etxeke lanak egiteko. Dendari

bezala edo ostalaritzan lan egiteko prest. Telefonoa: 677 356 413.

## SALEROSKETAK

## SALDU

Paseoko bizikleta beltza salgai, 125 eurotan, saski eta guzti. 610 953 258.

1976. urteko auto bat saltzen da: Ford Scort G/ JL 1300. Bost ate, beti garajejan egon da gordeta. Prezio oso merkea. Telefonoa: 671 605 771

Gurpil-aulki elektriko bat saltzen dut, Quickie Tango markakoa. Telefonoa: 629 443 731.

Ohe artikulatua, sofa ortopedikoa eta ultiarak ekiditeko koltxoia saltzen ditut. 670 350 378.

## JAIOTAKOAK

**Leire Fernandez Llanos.** Irailaren 20an.  
**Martina Gallego Moreno.** Irailaren 21an.

## HILDAKOAK

**Manoli Usabiaga Larrarte.** Irailaren 26an.  
**Ana Mari Urkiola Mercero.** Irailaren 26an.  
**Victoria Torre Gonzalez.** Irailaren 23an.  
**Gregoria Manglano Rincon.** Irailaren 22an.


## ESKELAK

OROIGARRIA

**Manoli Usabiaga  
Larrarte**

—Goian bego—

2017ko irailaren 26an hil zen, 87 urte zituela.



---

*Ttakun Kultur Elkartearen partetik, besarkada bat eta doluminak senide eta lagunei.*

---

Ttakun Kultur Elkartea.  
Lasarte-Orian, 2017eko irailaren 29an.

## GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala, 29	URBISTONDO
Larunbata, 30	ACHA-ORBEA
Igandea, 1	ACHA-ORBEA
Astelehena, 2	DE MIGUEL
Asteartea, 3	LASA
Asteazkena, 4	GIL
Osteguna, 5	ACHA-ORBEA

## EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00

ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52  
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49  
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51  
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74  
GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29  
URBIS TONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67  
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

## GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00

Echeveste Elosegui: Elkano Kalea 9, Hernani/ 943 55 20 87

**Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira.**

Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera ([www.cofgipuzkoa.com](http://www.cofgipuzkoa.com)).

### ESKELAK JARTZEKO: Txintxarri erredakzioan 943 37 14 48

- ▶ Hileta egunean eskela txintxarri.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Txintxarri paperean 90€
- ▶ Eskela mota guztiak Txintxarri paperean + txintxarri.eus-en: 90€
- ▶ Eskela mota guztiak paperean: 80€

Txintxarri: doan eta euskaraz Lasarte-Oriako etxe guztietan

txintxarri

[www.txintxarri.eus](http://www.txintxarri.eus)

## Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkartea  
Geltoki kalea 4  
20160 LASARTE-ORIA  
G-20407557

## Erredakzioa

Nerea Eizaguirre, Inigo Gonzalez,  
Maddi Noriega eta Adrian Garcia.

## Publizitatea

Arantxi Zulaika.

## Laguntzaileak

Unai Muñoa, Gorka Lasa,  
Ane Labaka, Mailu Arruti,  
Asier Odriozola, Gorka Alvarez,  
Jexux Artetxe, Maider Galardi,  
Mikel Yarza, Nerea Segura eta  
Aizpea Amas.

## Informatikoa

Asier Aztiria.

## Administraria

Nerea Garziarena.

## PUBLIZITATEA

Ttakun Kultur Elkartea  
Geltoki kalea 4  
Tel.: 943 37 14 48 (106)  
[publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus)

## EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkartea  
Geltoki kalea 4  
Tel.: 943 37 14 48 (104)  
WhatsApp: 688 68 35 10  
[txintxarri@txintxarri.eus](mailto:txintxarri@txintxarri.eus)

## Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

## Lege Gordailua: SS-513/94

ISSN: 1134-0053

Tirada: 7.800 ale

BABESLEA



**LASARTE-ORIA**  
UDALA

LAGUNTZAILEAK



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Saiburuordetza



Gipuzkoako Foru Aldundia

TXINTXARRIK ez du bere gain hartzen kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

# AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENA ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

## OSTIRALA 29

### LASARTE-ORIA Hitzaldia

1936/07/18ko Estatu Kolpea GIpuzkoan eta Nafarroan hitzaldi sortaren aurkezpen ekitaldia. Ostein, J.A. Muguruza Islada Ezkutatuak taldeko kideak *Beasain: ekintza militarren eta errepresio faxistaren hasiera Oriako bailaran* hitzaldia eskainiko du. **Mercero Aretoa, 19:00etan.**

### LASARTE-ORIA Kale-Antzerkia

Ganso & Cia konpainiak *Walkman* lana eskainiko du. **Okendo plaza, 19:00etan.**

### URNIETA Sanmielak

Urnietako jaien egun handia, Sanmiel eguna ospatuko dute: **11:00etan**, meza nagusia, Mikel Goiaingeruaren eliza.

**12:00etan**, udalaren omenaldia Adarra-Usabelartza elkarteak urnietarrei, udaletxea. **12:00tik 14:00etara**, Urnietako festetako I. pilpil erarako bakailao lehiaketa, jaietako karpa.

**18:30ean**, XXIII. Martin Mujika Pilota jaialdia, erremontean eta esku-pilotan afizionatuak. **19:00etatik 21:00etara**, "Diskofesta" DJ Makalarekin, San Joan plaza. **23:00etan**, Kontzertuak, txosnagunean: Egurra ta kitto!, Skakeitan eta DJ Komando Klitorix. **00:00etatik 2:30era**, "Diskofesta" DJ Makalarekin, San Joan plaza.

## IGANDEA 1

### LASARTE-ORIA Adinekoen Omenezko Astea

Biyak Bat elkarteak, udalaren laguntzaz, Adinekoen Omenezko Astea antolatu du. Ekintza ugari izango dira: **10:15ean**, Bandera igoera eta aureskua, Biyak Bat egoitza. **11:00etan**, Meza, San Pedro parroikia. **12:00etan**, kalejira Manuel Lekuonara. **12:30ean**, Biyak Bat elkarteak abesbatzaren eta Amaia Gonzalez Caballeroren saioa, Manuel Lekuona. **14:00etan**, bazkaria, Michelingo pilotalekuan.



**LASARTE-ORIA Kale-antzerkia** *Walkman*, ezertarako balio ez duten trebetasunen erakustaldia. Gizona, showmana, seduktorea, tipo baikorra. Egiten duen guztiak merezi duela sinestarazteko prest dagoen tontolapikoa. Komeria bisuala, unibertsa eta partizipatiboa. Uztailan bertan behera gelditu zen kale-antzerkia dugu. Eusko Jaurilaritzak eta Lasarte-Oriako Udalak sustatua. **Okendo plaza, 19:00etan**

**16:00etan**, dantzaldia Ruby Berriak taldearen eskutik, Michelingo pilotalekuan. **Lasarte-Oria, 10:15etik aurrera.**

## ASTELEHENA 2

### LASARTE-ORIA Adinekoen Omenezko Astea

Biyak Bat elkarteak, udalaren laguntzaz, Adinekoen Omenezko Astea antolatu du. Ekintza ugari izango dira: **16:30ean**, Toka, igela eta pote txapelketak, Isla plaza. Izena ematea jokoak hastean amaituko da. **18:00etan**, Bingoa, Biyak Bat egoitza. Izena ematea egunean bertan amaituko da. **20:00etan**, sari banaketa, Biyak Bat egoitza. **Lasarte-Oria, 16:30etik aurrera.**

## ASTEARTEA 3

### LASARTE-ORIA Adinekoen Omenezko Astea

Biyak Bat elkarteak, Udalaren laguntzaz, Adinekoen omenezko astea antolatu du. Ekintza ugari izango dira: **16:00etan**, Gimnasia erakustaldia, kiroldegia. **19:00etan**, Sun Magoa, Biyak Bat egoitza. **Lasarte-Oria, 16:00etatik aurrera.**

## ASTEAZKENA 4

### LASARTE-ORIA Hitzaldia

*Komunikazioa haurren zorientasunean* hitzaldia eskainiko du Paula Kasares adituak. Lasarte-Oriako Euskara Batzordeak indarrean duen *Haur Jaioberriak* programaren ekintza dugu. Hitzaldira azken hilabeteetan guraso izan diren herritarrei zuzendutako saioa da. **Antonio Mercero aretoa, 17:00etan.**

### LASARTE-ORIA Adinekoen omenezko astea

Biyak Bat eta Trintxerpeko abesbatzen saioa. Biyak Bat elkarteak, udalaren laguntzaz, Adinekoen Omenezko Astea antolatu du. **Brigitarren komentua, 18:30ean.**

## OSTEGUNA 5

### LASARTE-ORIA Adinekoen Omenezko Astea

Biyak Bat elkarteak, udalaren laguntzaz, Adinekoen Omenezko Astea antolatu du. Ekintza ugari izango dira: **17:00etan**, Lerroko dantzak, Okendo plaza. **19:00etan**, Kike Biguriren bakarriketa, Biyak Bat egoitza. **Lasarte-Oria, 17:00etatik aurrera.**

## ZINEMA

### LASARTE-ORIA

#### MANUEL LEKUONA

**Capitán Canzoncillos**  
Igandea: 17:00.  
**La seducción**  
Igandea: 19:30.

#### USURBIL

#### URBIL

#### Madre!

Ostirala: 16:00, 18:30, 20:00, 22:30, 00:00.  
Larunbata: 16:00, 18:30, 20:00, 22:30, 00:00.  
Igandea: 16:00, 18:30, 20:00, 22:30.

**La llamada**  
Ostirala: 15:45,

18:00, 20:20, 22:40, 00:50.  
Larunbata: 15:45, 18:00, 20:20, 22:40, 00:50.  
Igandea: 15:45, 18:00, 20:20, 22:40.

#### Operación Concha

Ostirala: 15:50, 17:55, 20:45, 22:50, 00:55.  
Larunbata: 15:50, 17:55, 20:45, 22:50, 00:55.  
Igandea: 15:50, 17:55, 20:45, 22:50.

#### Kingsman: El círculo de oro

Ostirala: 16:00, 18:50, 19:40, 21:50, 00:40.  
Larunbata: 16:00,

18:50, 19:40, 21:50, 00:40.  
Igandea: 16:00, 18:50, 19:40, 21:50.

#### La reina Victoria y Abdul

Ostirala: 16:15, 18:30, 22:40, 00:55.  
Larunbata: 16:15, 18:30, 22:40, 00:55.  
Igandea: 16:15, 18:30, 22:40.

#### La LEGO Ninjago película

Ostirala: 15:45, 17:35.  
Larunbata: 15:45, 17:35.  
Igandea: 15:45, 17:35.

#### Detroit

Ostirala: 21:30.

Larunbata: 21:30.  
Igandea: 21:30.

#### It

Ostirala: 16:00, 18:45, 20:00, 22:00, 00:45.  
Larunbata: 16:00, 18:45, 20:00, 22:00, 00:45.  
Igandea: 16:00, 18:45, 20:00, 22:00.

#### Tadeo Jones 2: El secreto del Rey

Ostirala: 15:50, 17:55.  
Larunbata: 15:50, 17:55.  
Igandea: 15:50, 17:55.

#### Verónica

Ostirala: 00:55.  
Larunbata: 00:55.



## LABURPENA

### La seducción

**Zuz.:** Sofia Coppola. **Herr.:** Estatu Batuak (2017). **Gidoilaria:** Sofia Coppola. **Aktoreak:** Colin Farrell, Nicole Kidman, Kirsten Dunst, Elle Fanning, Oona Laurence, Angourie Rice, Addison Riecke, Wayne Pére, Emma Howard, Matt Story eta Rod J. Pierce. **Iraupena:** 91 minutu

## Sedukzioaren jokoa

1864, Virginia. Estatu Batuetan Sezesio-gerra dago. Emakume bat eta hainbat gazte isolatuak bizi dira gain behera doan nesken eskola batean.

Nesketako batek zaurituta dagoen John Mc Burney soldadu yankia jasotzen du eta eskolaren eguneroko martxa aldatuko da.

Soldadua sendatzen den bitartean, bere eta etxeko emakume eta gazteen arteko sedukzio jokoa dago. Ondorioz, eskolako kideek bata bestearen aurka lehiatzen dute soldadua bihotza irabazteko.

Baina gertaera latz baten ostean, soldadua jarrera aldatzen da.

Sofia Coppola Clint Eastwood protagonista zen *El seductor* filmaren bertsio berria grabatu du. Hori esker, 2017ko Canneseko Zinemaldiko Zuzendari onenaren saria jaso du.

Filmaren gidoia Thomas P. Cultivan *A painted Devil* nobelari oinarritua dago. Sofia Coppola berak idatzi du gidoia eta istorioari beste ikuspuntu bat eman dio, emakumeena.

Filma ez da gomendagarria 12 urte baino gazteago diren haurrentzat.

# Osasun gida 2017



## Hortz klinikak



## Yoga

R.P.S: 24/15



### Urdaneta hortz-klinika

- Haurrentzako eta helduentzako ortodontzia
  - Odontologia orokorra
- Periodontzia
- Hortz protesiak
- Implanteak
- Aho kirurgia

Pablo Mutiozabal 2, 1. bulegoa 9 • Lasarte-Oria  
Tel.: 943 36 60 79  
Mugikor eta whatsapp-a: 663 75 15 15

R.P.S: 233/13



- Lehenengo kontsulta eta diagnostikoa doan
- Zure aurrekontuari egokitutako tratamenduak
- Doako urgentziarako zerbitzua gure pazienteentzat
  - Errehabilitazioetan espezialistak
  - Odontologia etikoa

Ola kalea 10, Lasarte-Oria  
943 366 377  
www.dentalaldaz.com

Klase bat  
probatzera  
gonbidatzen  
zaitugu!



## Eka Studio

### YOGA & ONGIZATEA

- Yoga
- Yoga dinamikoa
- Haurdunaldirako yoga
- Haurrentzako yoga

Tel.: 943 37 75 01 • 672 44 86 44 • ekalasarate@gmail.com  
Green Plaza 1, 2. beheka • Lasarte-Oria  
www.ekayogalasarate.wordpress.com

*Zure osasuna, esku onenetan*

Hurrengo gida urriaren 20an.  
Parte hartu nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:  
943 37 14 48 (106) / 646 82 44 66

Josue  
Igeltseritza

## Igeltseritza orokorra

Fatxaden estaldurak      Barruko berrikuntzak  
Estalkien berriztatzeak      Gremioen koordinaketa

606 37 21 05 | Atallu pol. atallu, 28 | USURBIL

josueigeltseritza@euskalnet.net